



Gourette

EGITARUA

Uztailak 16: 6:00 Zarauztik. Irteera, eta 09:30 aldera **Gourterra** iritsi, bertan motxila prestatu eta Soulour bidean dagoen Litor bailarara joango gera autobusez. Bertan aparkatu eta **GRAN GABIZOS (2692)** aldera joango gara. Horretarako, Litor bailaratik igoko gara eta Louesque mendira igoko gara lehenik, handik nahi duenak Grand Gabizos igo eta berriz puntu honetara itzuliko da. Jaitsiera malkartsu batetik Louesque lakuetara jaitsiko gera eta handik Gouretteko estazioan bukatuko dugu.

Luzera: 14 km

Desnibela: 1350 m

Uztailak 17: Gourette inguruan buelta zirkularra egingo dugu **GER (2613)** mendiaren inguruan. Estazioko pistetan barrena igoko gara Col Amoulat aldera, Pene Medaa mendiaren magaletik. Bertan, Amoulat mendizarra bertatik bertara ikusiko dugu. Handik, Ger mendia igoko dugu eta Col de Ger-era jaitsiko gara. Ger-eko bailaratik estaziora itzuliko gara, bukaeran baso ederretatik ibiliaz.

Luzera: 14 km

Desnibela 1500 m

OSTATUA **Chalet-Refuge CAF de Gourette** aterpetxean (Gourette) hartuko dugu ostatu.

Erregimena: Pentsio erdia

	Bazkideak	Ez bazkideak
Gazteak	55,00 (25 urte arte)	60,00 (25 urte arte)
Helduak	90,00	100,00

PREZIOAK

Ekipajea: udako ohiko ekipoa; beroki/euritakoren bat, makilak, esku-zorroak, bi egunetarako mokaduak, ura eta abar. Ez sartu pisu gehiegi motxilan.

Prezioan sartzen da: autobusa (joan-etorria) eta ostatua (afari eta gosari).

Izen-ematea

Bi aukera daude:

- Pagoeta Mendizale Elkartean. Egunak: Ekainaren 23tik aurrera, 20:00etatik 21:00etara.
- Elkartearen helbide elektronikora idaztea (pagoetame@gmail.com), norberaren datuak emanaz eta ordainagiriaren dokumentua erantsiz. **Ekainaren 24tik aurrera jasotako mezuak soilik onartuko dira.**

Derrigorrezkoa da FEDERATUA izatea

Izena eman eta ordainketa egindakoan onartuko da zerrendan (**plazak: 26**)

ORDAINKETA Ordainketa transferentzia bidez egin behar da, eta ordainagiria aurkeztu.

Transferentzia egitean, bakoitzaren izen-abizenak eta "Pirinioak" kontzeptua jarri behar da

Transferentzia bi kontu hauetako batean egin daiteke:

Kutxabank: IBAN: ES91 2095 5076 48 1065685215; BIC: BASKES2BXXX

Laboral Kutxa: IBAN: ES29 3035 0029 65 0290015562; BIC: CLPEES2MXXX

IRTEERA Goizeko 6:00etan Agoues-eneko biribilgunetik. **5:45erako** irteera gunean egotea gomendatzen da.

OHARRAK

- Baja emanez gero eta ordezkorik ez badago, diru itzulketa aterpetxearen arabera izango da.
- Unean-uneko egoerak horrela eskatzen badu, antolakuntza batzordeak eskubidea du beharrezko aldaketak egiteko egitarauan.